

# EROSKI CONSUMER puntaren puntan irakurleen iritziz

Kontsumitzaileek berriro ere oso iritzi onak eman dituzte gure informazio-proiektuaren inguruan



## Emaitzak

### >> Aldizkaria

#### Jendeak ezagutzen al du aldizkaria?

Zalantzarik gabe. Herritarren erdiek baino gehiagok ezagutzen dute EROSKI CONSUMER aldizkaria. Gainera, antzeko izaera dutenen artean, hauxe aipatzen du gehien jendeak. Eta EROSKIren bezeroen artean galdetuta, % 90ek adierazi dute ezagutzen dutela.

Kontsumoarekin zerikusia duten aldizkari gehiago ere argitaratzen dira, baina hamar irakurletatik zazpi EROSKI CONSUMER atsegin dute gehien: % 57ren ustez, argitalpen praktikoa eta erabilgarria da eguneroko zereginetarako, eta % 19,2ren iritziz, hobeki erosteko beharrezkoa den informazioa ematen du. Bi portzentaje horiek, hurrenez hurren, hiru puntu eta puntu eta erdi igo dira azken urtean.

Aldizkariari buruzko iritzia hobetu egin da iaztik. Lehen ere aski ona zen, eta orain are hobe: 7,6 puntu eman dizkiote irakurleek.

Kontsumitzaileei laguntzea da EROSKI CONSUMERen helburua. Informazio zorroztza eta kalitatezkoa emanez lantzen ditugu gaur egungo kontsumitzaileentzat interesgarri eta kezka-iturri izan daitezkeen hainbat gai: Elikadura, Haurtxoak, Brikolajea, Etxeko Ekonomia, Heziketa, Maskotak, Ingurumena, Osasuna, Elkartasuna eta Teknologia Berriak.

Konpromiso horrekin sortu zen aldizkari hauxe, 1974. urtean, eta urte batzuk geroago, 1998.an, haren ahizpa txikia sortu zen, EROSKI CONSUMERen web-orria alegia ([www.consumer.es](http://www.consumer.es)).

Zerbait egiteko asmoa izatea akuilu ona da aurrera joateko, baina horrek ez du esan nahi asmoa bete egingo denik. Egiaz al gara kontsumitzaileek aintzat hartzen duten gida eredugarria? Ongi erantzuten ari al gara hasierako asmoei?

EROSKI CONSUMERen egiten dugun lana hilero jartzen dugu irakurleen eta erabiltzaileen esku: batzuek aldizkaria goitik behera irakurriko dute, beste batzuek gai jakin batzuei emango diete begiratu bat, beste zenbait web-orrian bilatuko dute interesatzen zaiena eta hainbatek harpidetuta dauden kanal horretako buletinak irekiko dituzte. Esan bezala, hilero-hilero izaten dugu zain irakurleen galbahea.

Guk, hala ere, urtero jakin nahi izaten dugu ongi betetzen ote dugun gure zerbitzua, eta gaur egungo kontsumitzaileen nahiak eta beharrak asetzen ote ditugun. Horretarako, kontsumitzaileei eurei galdetzea izaten da onena, eta horixe egin dugu. Inkesta zabal bat prestatu dugu, eta hainbat galderari erantzuteko eskatu diegu 2.300 laguni baino gehiagori. Hemendik eskerrak eman nahi dizkiegu beren prestutasunagatik, haien laguntza oso baliagarria izango zaigu-eta gauzak hobeki egiteko.

#### Zer maite dute gehien?

Irakurleek gehien nabarmendu dituzten alderdiak bat datoz argitalpenak hasieratik beretik izan dituen oinarriekin: eduki atseginak eta erraz ulertzekoak, idazkera arinez eta diseinu argi eta ikusgarri emanak, eta objektibotasunez eta zorrotz landuak. Irakurleek gehien estimatu dituztena, hain zuzen, idazkera eta edukiak ulertzeko erraztasuna izan dira: 7,9 puntu eman dizkiete alderdi horiei, 10en gainean.

#### Zer hobetu daiteke?

Inkestan parte hartu duten irakurleen artean, hamarretik seik ez lukete deus ere hobetuko, eta % 94,7k ez lukete sail bat bera ere kenduko. Gustura entzuten dira halako iritzia, baina badakigu gure lana ere hobetu litekeela eta ezinbestekoa dela irakurleek eurek ematen dituzten ideiak entzutea. EROSKI CONSUMERen ibilbide luzean beti hatu ditugu aintzat haien pro-



#### EZAGUTZEN DUZU EROSKI CONSUMER ALDIZKARIA?

